



Adinekoen omenaldi astean milaka ekintza.- Bandera igotzea eta agurrarekin batera asteartean Adinekoen Omenaldi asteari hasiera eman zitzaion. Lasarte-Oriako alkateak Pablo Barriok hitz batzuk egin zituen hasiera ekitaldian eta besteak beste, Mertxe Galdos ekainean zendu zen lehendakari ekarri zuen gogora. Txapelketak, bakarrizketa, Udal Musika eskolako trikitilarien saioetxoak, goiko argazkian ikusi daitekeen gimnastika eta aerobik erakustaldia... izan dira egun hauetan. Baina oraindik ekitaldi ugari geratzen dira. Gaur Sun Magoaren "Spectacular MAGIK" ikuskizuna izango da ikusgai Manuel Lekuona kultur-etxean eta aurretik Udal Musika eskolako trikitilarien saio berria izango da. Bihar goizean berriz, Lasarte-Oriako eta inguruko herrietako jubilatuek bildu nahi dituen Ibilaldi neurtua izango da. Arratsaldean, berriz, dantzaldia eta dantza txapleketa izango dira. Igandean, berriz, omenaldiaren egun handia izango da. San Pedro Elizan meza eta Manuel Lekuona Biyak Bat elkarteak abesbatza eta Zero Sette akordeoi orkestra entzuteko aukera izango da. Ostean, 28 urte hauetan ohikoa den legez bazkari herrikoa izango da Kirol guneko pilotalekuan eta bazkal ostean, dantzaldia. Asteburuan ederki gozatzeko hainbat ekintza izango dituzten beraz herriko pertsona adinduek.

3 KULTURA

Antzerki amateurra Topa eszenikaren eskutik

Antzerki amateurra sustatzen duen Usurbilgo V. Topa Eszenika Añorga eta Lasarte-Oriara hedatu da. Ondorioz, bihar arratsaldean Metro koadroka kolektiboaren eskutik "Poza: zergatik dantzatzen dute bosnarrak" antzezlana ikusi ahal da Manuel Lekuona kultur-etxean.

6 KIROLA

Areto-futboleko taldeek garaipema eskuratu zuten

ISU Leioak eta Aldaz H.K. taldeek lehengo asteburuan haien partidak irabazi zituzten. ISU-k bere jokoak egin eta erraz lortu zuen garaipena, 5-2 Hirukideren aurka. Aldaz H.K. taldea berriz, larri ibili zen baina bigarren zatian lortu zuen partidari buelta ematea, 4-5.

8 KULTURA

"Lasarte-Oria gure herria" ikastunitatea aurkeztu da

Lasarte-Oriako Udalak eta Artelatz kooperatibak "Lasarte-Oria gure herria" ikastunitatearen III. edizioa aurkeztu zuten ostiralean. Bertan izan ziren ikastunitatea landuko duten ikastetxeetako gaztetxoak ere. Hauek herriari buruzko hainbat gairi buruz ikasiko dute Otsa Lontxoren laguntzaz.



ALBOKA
Abesbatza
LASARTE-ORIA

Abesten ikasi nahi al duzu?

Abestea, bidaiatzea eta ekintzetan parte hartzea gustoko?

Zatoz gure entsegu batera!

Ez duzu musika ezagutzarik izan behar

Entseguak **astelehen eta ostegunetan** dira Arantzazuko Amaren eliza azpiko lokalean, **20:00etatik 21:30era**.

Informazio gehiago www.albokaabesbatza.com-en edo idatzi alboka@albokabesbatza.com helbidean.



Bidaia, kontzertuak, elkartrukeak eta bereziki abesten ongi pasatzea

Gazteak ere anima zaitetzte!

5 eta 14 urte arteko haur eta gazteei zuzendua



ALBOKA
TXIKI

Entseguak asteartean, 18:00etan

Arantzazuko Amaren eliza azpiko lokalean Zatoz eta proba ezazu!!!

Neure kabuz



Ane Labaka

Betaurreko moreak

Hasi da txapelketa –Villabonako kirolegia goraino beteta-. Ia mila abaniko, bi mila begi eta belarri lekuko gisa. Eta ofizioz ofizio iritsi da kartzelako ariketa. Gaiak hala eskatuta, sei bertsolariak ikusi nahi ez zuten zerbaiten lekuko izan dira eta zer egin ez zekitelako geratu. Bi izan dira bortxaketa bat irudikatu dutenak; biak emakumeak. Kasualitatea. Edo ez? Ziur asko beraiek izango dira etxerako bideak, bakardadeak eta iluntasunak noizbait ahuldu eta beldurra sentitu dutenak. Beraz, nire ustez ez da arraroa, horrelako gai bat entzun eta zuzenean burura egoera hori etortzea edo horri buruz kantatzeko gogoia eta beharra sentitzea. Kausalitatea.

Irailaren hasiera zen. Berrogeitik gora emakume bildu ginen Axxixuko aterpetxean, bertso mundukoak denak. Ahal bezainbeste zukutu genuen motz geratu zitzaigun asteburu bakar hura. Emakume bertsolari izanda gaizki sentiarazi izan gaituzten momentuak konpartitu eta hortik abiatuta umorea egiteko gai izan ginen (emakumezkoen umorea bai, ezinezko zirudien hori lortu genuen). Estereotipoak hausten saiatu ginen antzerkien bidez. Gaietara nondik eta nola heldu eztabaidatu genuen. Emakume iturginak izan ginen. Iraultzaren izenean mundua konpontzen saiatu eta oharterako erlojuak goizeko seiak zirela gogorazti zizun. Esmatu ginenean, ordea, munduak bere horretan jarraitzen zuen. Barre egin genuen, eta negar (batzuk besteek baino gehiago). Entzun egin genuen, eta kontatu. Hustu egin ginen, eta bete.

Betaurreko moreak jantzi genituen.

Zorion agurrak



Ane

Zorionak Sorgina! Lau txokolatzeko muxu potolo familiaren partetik.



Kiko

Zorionak denon partetik, ikusiko duzu ze ondo pasatuko dugun 12an. Muxu mordo bat



Eneko

Gutxi falta da gizon bat bihurtzeko. Hazi familiaren maitasunarekin eta zuregan sinetsi.



Luana

Zorionak rusa! Muxu handi bat zure lehen urtebetetzean aita, ama, Sayen eta Nahuelen partetik.



Aiora

Zorionak panpoxa!! Etxeko prentsesarentzat txoko-marrubizko muxu pila!!

Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, txintxarri@txintxarri.info edo txintxarri.info web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

- Urbarteko auzoan Atsokabar erresidentzia frentean garaje marra bat alokatzen da. Harremanetarako, 943 364 169 (Gabriela).
- Etxea salgai Urko enparantzan, 4. pisua igo-gailuarekin. Etxeak 90m2 ditu, 3 logela, bi komun, egongela eta sukaldea. Harremanetarako 649 035 386
- Apartamentua salgai Ori auzoan. 43 metro karratu. Logela, sala-sukaldea, bainua, garajea eta trastelekua. Etxebiden izena emanda izatea beharrezkoa. 102.000 euro. Harremanetarako, 608 878 512.
- Garajea alokatzen da Atsokabarren, Garaikoe-txe ikastetxe parean. Sarrera erraza du, handia eta merkea da. Harremanetarako, 943 36 54 76 edo 659 021 945.

Lan-eskaria

- Erreferentziak dituen neskak lan bila. Etxeko

- lanak egin edo haur zein pertsona adinduak zainduko lituzke. Orduka edo interna moduan. Harremanetarako, 628 272 416.
- Interna, externa modura edota orduka lan egiteko prest garbiketan edo zaintzan. 671 763 558
- Paperak dituen neska eskaintzen da orduka edo interna modura lan egiteko. Harremanetarako, 666 708 963.

Bestelakoa

- Laguntza klaseak ematen dira Lehen Hezkuntza, DBH eta Batxilergoan. Talde txikiak, esperientzia handia, arreta pertsonalizatua, ikasgai guztiak... Harremanetarako zenbakiak, 943376888 / 646645445 (Maria)
- Betaurreko graduatuak galdu dira. Montura txikia dute eta Abendu inguruan galdu nituela uste dut. Norbaitek aurkitu baditu, eskertuko nuke nirekin harremanetan jartzea. 943 370 525 edo 943 007 604.

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Axel Fuertes Sanchez, irailaren 28an.
- Amets Vila Pineda, irailaren 17an.



Heriotzak

- Manuela Hernandez Martin, urriaren 1ean, 79 urte zituela.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 04	Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Larunbata, 05	Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9	943 019521
Igandea, 06	Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9	943 019521
Astelehena, 07	Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Astearte, 08	Urbistondoa, San Frantzisko 1	943 366567
Asteazkena, 09	Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9	943 019521
Osteguna, 10	Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero
Aldabe, Perkaiztegi 8
Hernani, Tel.: 943 336 022

Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udaltzainak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Udalaren telefonoak

Erregistroa	943 376055
Euskarako Zerbitzua	943 376184
Kirolegia	943 376182
Kulturetxea	943 376181
Gizarte Zerbitzuak	943 376179
KIUB	943 361605
Udal euskaltegia	943 361621
Muntteri AEK	943 372863

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Laguntzailea



GFako Kultura eta Euskara Departamendua

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Argitaratzailea:

Ttikon Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maidor Azumendi, Nerea
Ezaguirre, Jon Altuna E.

txintxarri@txintxarri.info

Publizitatea eta administrazioa:
Arantza Artola

publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñica, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Maitu Amuti,
Aster Odriozola, Jone M.,
Hernandez, Oihana Salazar,
Pako Aizpitarte, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

KULTURA

“Poza” antzezlan Topa Eszenakikaren baitan

Kukukarekin elkarlanean iritsi da Usurbilgo ekimena herrira



Bost lagunek gela baten barruan duten solasaldia ikusteko aukera izango da bihar Manuel Lekuona kultur-etxean.

Kukuka antzerki eta dantza eskolarekin elkarlanean. Usurbilen Antzerki Ekintza taldeak antolatutako 5. Topa Eszenika gure herrian izango da gaur lehenengoz. Egitarau honen baitan dator “Poza” antzezlan Manuel Lekuona. Saioa bihar 20:00etan hasiko da.

TXINTXARRI

Irailaren 25etik hasita Usurbil, Añorga eta Lasarte-Orian antzerki eta dantza ikastaro zein ekitaldi ezberdinak izan dira Topa Eszenikoaren baitan.

Honakoa Usurbilgo Antzerki Ekintza taldeak antolatu du eta gaur eta bihar Lasarte-Orian eta Añorgan ere ekimen honetako ekintzak izango dira.

Topa Eszenikoaren baitan ikuskizunez gain, formakuntza saioak daude, aurtin ikastaroak Usurbilen egin dira soilik, baina etorkizunean Añorga eta Lasarte-Orian ere egitea da ideia.

“Poza”

Bihar, esate baterako, “Poza” antzezlan eskainiko du Metro koadroka kolektiboak Manuel Lekuona kultur-etxean arratsaldeko 20:00etan.

Jabi Barandiaran, Idoia Beratarbide, Ander Fernandez, Oier Guillan eta Asier Sarasola dira “Poza” antzezlaneko kideak. Bost lagun dira gela batean, zerbait gertatzeko zain.

Taldeak deskribatzen duenez, “ordu beteko tartean hainbat edertasun une proposatu dizkiote ikusleari, hainbat hari, hainbat bide. Ordubeteko tartean minutu bakar bateko edertasuna lor-

tuz gero, bete egingo da haien xedea”.

“Edertasunak itxaropena sortzen du, horregatik egin ohi zaio kontra. Esperientzia lazarri bat bizi izan duen inor ikustea mozkortzen, dantatzan, ahotsa kantu betearen urratzen... horren lekuko denari sortzen zaion egonezina da lan honen abiapuntua. Izutzeraino gozoak diren uneak, hunkiduraino ederrak diren krudeltasunak”.

Arte ezberdinen arteko elkarriketa proposatzen dute Metrokoadroka kolektiboko kideek lan honetan, elementu ez eszenikoetatik abiatuz eszenarako lan bat osatzeko, ohol-tzarako poesiaren bidean.

Kukuka Usurbilen

Aurreko asteburuan eta Topa Eszenikaren baitan Kukukako dantza garaikideko gazteen bi talde eta helduen hiru taldek emanaldia eskaini zuen Sutegin.



HERRIRA

Mobilizazioak Lasarte-Orian

Astelehenean, Herrira elkartearen aurkako operazio poliziala eta hamalau atxilotetak direla eta, aste honetan hainbat mobilizazio antolatu dira gure herrian.

Astelehenean herri batzarra eta manifestazioa izan ziren Lasarte-Oriako kaleetatik barrena, asteartean ere bilkura izan zen Okendo plazan, asteazkenean kartelak jarri zituzten eta atzo prentsaurrekoa eta argazkia izan ziren.

Prentsaurrekoan, besteak beste, babes adierazi zieten atxilotuei eta normalizazio politikoa eta giza eskubideak bermatzea, gaixo dauden presoak aske uztea eta alderdiei bakearen alde eta giza eskubideen alde lan egitea eskatu zuten. Era berean, larunbateko manifestaziora joateko deialdia egin zen.

Gaur berriz, sindikatuek deituta 12:00etan elkarretaratzera izango da udalaren aurrean. Arratsaldean berriz, 18:30ean urgentziarako batzarra deitu du Bilduk. Honetan ez dira ez PP ezta PSE-EE ere izango. Eta 20:00etan, bigarren elkarretaratzeko bat izango da.

ZABALETA AUZOLAN

Hitzaldiak eta irteera Lizarrustira

Zabaleta Auzolan elkarteak Udazkenari ongi etorria egiteko hainbat ekitaldi antolatu ditu. Lehengo astean, sardinada izan zen auzoan eta orain, bi hitzaldi eta irteera bat antolatu dituzte.

Hitzaldiak urriaren 4a eta 11ean izango dira, Antonio Blas plazako lokalean, 19:30etik aurrera. Lehenengoan, Saltzate baserriko Antonio Eleizegik hemengo txori eta hegaztiei buruz hitz egingo du. Bigarrenetan, berriz, Aizea Morales-Kastresanak minbizia eta hau tratatzeko terapiak izango ditu mintzagai.

Honetaz gain, Oinatz taldearekin bat eginez, elkarteak lagunak urriaren 12an eta Lizarrustiko parketxera irteera antolatu dutela ere eman dute jakitera. Interesa duenak auzoko dendan izena eman behar du urriaren 10a baino lehen.

ELEBELTZ TOPAGUNEA

Badminton txapelketa

Elebeltz Topagunea I. Banakako badminton txapelketa antolatu du. Parte hartu nahi duen guztiak [facebook.com/elebeltz_topagunea](https://www.facebook.com/elebeltz_topagunea) orrialdean iruzkin bidez edo topagunean bertan izena eman behar da urriaren 7a baino lehen.

Topaguneko arduradunek jakinarazi dute, apuntatzen den jendearen arabera moldatuko direla partidak eta lehenengo asteazkena 9an izango dela arratsaldeko 19:00etan. Finala urriaren 26an Matxaka egunaren baitan jokatuko da.

TopaEguna egin zen Sorraluzen

Larunbatean Topa Eguna ospatu zen Sorraluzen. Umeentzako jolasak, berba probak, kantu jira, herri bazkaria... denetarik izan zen festa egun honetan. Tartean herriko Mailu Arruti, Esti Garmendia, Ane Uizi eta Mirentxu Egizabal mendizaleak. Hauek Sorraluzeko kaleetatik barrena ibili ziren.

Jai giroa nagusi izan zen larunbatean Sorraluzen. Bertan Deba ibarreko euskara elkarteek Euskara Elkartearen Topagunearekin Topa Eguna ospatu zuten.

Egun osorako ekintza egitaraua antolatu zuten eta tar-

tean Jon Sarasuak Pamiela argitaletxearekin argitaratutako “Hiztunpolisa Euskaltzainaren norabideaz apunteak” saiakera liburua aurkeztu zuen Herri Antzokian.

Honek mahaian Mikel Irizar eta Jose Angel Irigarai izan zituen lagun. Sarasuak euskalgintzaren gainean egindako azken hausnarketak bildu ditu lan honetan.

Tokikotasuna eragiteko

Horretaz gain, herri bazkaria, esketak, jokoak etab. Irriren lagunekin gozatzeko aukera izan zuten ere txikiak.

Arratsaldeko ekitaldian, Deba ibaian, petaloetan euskara elkartearen balioak erakusten zituen lorea osatu zuten ur-azalean hainbat elkarteetako ordezkariak: euskalduntasuna, auzolana, plazera eta plaza hitzekin.

Mikel Irizar, Topaguneko lehendakariarentzat “Tokikotasuna” da oinarria, haren esanetan, bakoitzak “bere tokian” indartu behar du euskara.

Ttakuneko hainbat ordezkariak, Euskal Herriko euskara elkarteetako gainontzeko kideekin festan parte hartu zuten.



Euskara elkartearen balioekin lorea osatu zuten. Behean herriko mendizale koadrilla.



AKENE zapatadenda



ALBA MODA denda



ALDA COMPLEMENTOS



LASARTE SYSTEM
www.lasarte-system.com



ZUMABURU liburudenda
www.libreriazumaburu.com



MAPFRE aseguruak
javsanz@mapfre.com



ARITZA mertzeria
www.merceriaaritza.com



ASMAE zapatadenda
zapatadenda@gmail.com



ANDATZA taberna



MARTINEZ MULTIMEDIA
www.dendamarc.com



MAUXAREN DENDA



MAYA lenteria



ARKUPE taberna
facebook.com/ArkupeTaberna



TXANPA taberna



BAZAR ABREU
bazarabreu@hotmail.com



BIDEO LAGUNAK
www.bideolagunak.com



OLMI mertzeria
www.merceriaolmi.com



URRUZOLA mertzeria



NOAOA BIDAIAK
noaoabidaiak@almeidaviajes.com



LIZARRI optika



OKELA harategia
okelaharategia@gmail.com



CARREFOUR EXPRESS
www.carrefour.es



ALDATZ hortz klinika
www.dentalaldaz.com



NOGUES jostudenda



ORBELA ekodenda
orbeladenda@gmail.com



ORMAZABAL loradenda
www.floristeriaormazabal.es



MAIANE perfumeria
www.perfumeriamaiane.com



MARTIN BERASATEGUI jatetxea
www.martinberasategui.com



DONNA arropadenda



EKAIN LIBURUDENDA
facebook.com/Ekain-Liburudenda



EL AJUAR DEL BEBE
www.ajuardelbebe.com



ARREGUI elektrizitatea
www.electricidadarregui.com



SANTANA informatika
facebook.com/SantanaInformatika



ALCAR leihoak
www.ventanasalcar.com



ISU leihoak



VENTANAS SAN MIGUEL
www.ventanassanmiguel.com



SUKOA burdindenda



MAITE BETELU gestoria
www.mbetelu.com



IZARRA bitxitegia
izarrabitxitegia@hotmail.com



LA DOLCE VITA arropadenda



VERUSCHKA BOUTIQUE



ITURBE oinetakoak



CANNES
www.canneslasarte.com



BOZAL GERMAN
www.cuchillosayafiladosbg.com

LABURRAK.-

Ostadar SKT-ko saskibaloitzaletan

Ostadar SKT-ko saskibaloitzaletan asteburu honetan eman go diote hasiera 2013-2014 denboraldiari etxean.

Aurten Ostadar SKT-k bi neska talde osatu ditu, bata junior parte-hartze mailan eta bestea kadete errendimendu mailan. Bi taldeak gogotsu daude denboraldia hasi eta iaz kadete taldeak lortutako garaipenak berdintzeko.

Era honetara, larunbatean bi taldeen lehen partida ikusteko aukera izango da kiroldegian. Junior mailako neska International taldearen aurka jokatuko du 10:00etan; kadeteek berriz Soraluze Bergara izango dute aurrez aurre 16:00etatik aurrera.



Beltzak Ostadar Zarautz kadeteek

Lasarte-Orian infantil mailako errugbia ikusi ahal izan genuen larunbatean. Baina Beltzak Ostadar taldeko kadeteek Zarautzen izan zuten partida, arerioa bertan ere Ordizia izan zen.

Taldeko arduradunek azaldu dutenez, partida berdindua izan zen eta ederki borrokatua izan zen.

Lehenengo zatia bina entseguko berdinketarekin amaitu zen eta bigarren zatian, berriz, presioa egiten hasi zen herriko taldea. Nahiz eta pilota ruck-etan borrokatu Ordiziakoek bi entsegu egin zituzten eta markagailuan aurreratu ziren. Ederki erantzun zuten Beltzak Ostadarreko mutilek eta partida berdindu zuten.

Partida amaitzean zegoela, Ordiziarrek entsegu lortu eta garaipena eraman zuten.

Taldeko arduradunentzat, esperientzia oso positiboa izan da jokaldiak probatzeko balio izan zuelako.

Leitzara txirrinda irteera

Ohitura bihurtu den Basaundi eta Leizara arteko joan etorria urriaren 12an, larunbatez egingo da.

Goizeko 8:30ean elkartuko dira Basaundin, Leizara egingo dute hamaiketako eta gero berriro bizikleta gainean itzulidura. Ondoren nahi dutenek Basaundiko Buruntz-Azpi elkartearen bazkaltzeko modua izango dute.

Beste urtetan 20 bat lagunek parte hartu dute 60-70 kilometro inguruko bizikleta irteera honetan. Antolatzaileek deia luzatu dute nahi dutenek parte hartu dezaten. Gainera, nahi dutenek uza horretan esan eta elkartearen bazkaltzeko aukera izango dute.

ARETO-FUTBOLA.-

ISU eta Aldaz-en garaipenak

Konfiantzazko puntuak lortu zituzten

Lasarte-Oriako areto-futboleko taldeek jardunaldi ederra izan zuten lehengo larunbatean. ISUk erraz irabazi zuen bere partida eta Aldaz H.K.-k partida borrokatu behar izan zuten bigarren zatian.

Nerea EIZAGIRRE

Larunbatean herriko areto-futbol taldeek jardunaldi izan zuten. ISU Leihoak taldeak denboraldiari hasiera ederra eman zion Tolosako Hirukide Plomix Fronton taldeari 5-2 irabazita; Aldaz-ek ere urrezko hiru puntu eskuratu zituen Elorrioko Buskantz taldearen aurka.

Gipuzkoako Ligari hasiera eman zitzaion lehengo asteburuan eta ISU Leihoak taldeak lehen partidaren bere maila erakutsi zuen. Eneko Molina entrenatzaileak adierazi duenez, "nahiko partida erraza izan" zen.

ISU bere jokoa egin ahal izan zuten Hirukide taldearen aurka, "ongi defendatu eta aurrean ere ederki lan egin genuen. Ongi kontrolatutako neurketa izan zen".

Partida hasieratik nagusitana erakutsi zuen Lasarte-Oriako taldeak eta laster markagailua alde jarri zuen.



ISU Leihoak taldeak erraz jokatu zuen lehengo larunbatean.

TXEMA VALLES

Markagailuan 5-0eko zegoela, ISU-k bi akats egin eta bi gol sartu zituzten.

Aste honetan, Zurt taldearen aurka jokatuko dute. Partida borrokatua izango dela aurreratu du Molinak. "Talde gogorra da, urtero sufritzen dugu haiei irabazteko. Baina gauzak ongi egin eta irabaztea espero dugu, aurrean kalitate handiko jendea dugu eta defentsan ongi bagabiltza, aukerak ditugu partidak irabazteko", esan du.

Bigarren zati erabakiorra

Bestalde, Aldazek ere Elorrioko garaipena lortu zuen Elorrioko Buskantz taldearen aurka.

Oscar Garcia entrenatzaileak adierazi duenez, "bi zati berezi daitezke". Lehenengo zatiko 3. minutuan penalti argia egin zioten Aldaz-i eta ez zuen hutsik egin. Tamalez

etxeok kontraeraso azkarrak egiten zituzten eta zail izan zitzaion herriko taldeari erasoak gelditzea. Honela atsedendaldira 3 eta 1 joan ziren.

Bigarren zatia eraman hasiera ere gogorra izan zen Aldazeko mutilentzat eta 4-1eko lortu zuen arerioak.

Baina atezain jokalaria atera zuen Oscar Garciak eta honek bizia eman zion taldeari. Gainera, arerioaren defentsak behera egin zuen eta honek Aldazaren erasoak erraztu zituen. Honela 4-5 jartzea lortu zuen Lasarte-Oriako taldeak.

Larunbatean berriz, Gipuzkoaren arteko derbia ikusiko da kiroldegian, Zarauzko Kandelaren aurka jokatu behar baitu. "Maila bereko taldea da. Helburua lortzeko etxean ezin dugu hutsik egin", onartu du Garciak.

KIROL AGENDA.-

FUTBOLA

Larunbata 05
 Michelin, 10:00etan
 Ostadar B-SANSE B
 I. Kadetea
 Michelin, 12:00etan
 Ostadar-Antiguoko
 Euskal Liga, Kadeteen Ohorezko maila
 Urnieta, 12:00etan
 Urnieta-Ostadar
 I. Kadetea
 Martutene, Donostia, 12:00etan
 Martutene-Ostadar
 Infantil Txikia
 Michelin, 15:30ean
 Texas Lasarteerra-Martutene
 I. jubenila
 Michelin, 17:15ean
 Ostadar-Asoleus
 I. Erregionala

Igandea 06

Michelin, 10:30ean
 Ostadar-Hernani
 Jubilenen Ohorezko maila

Felix Garin, Donostia, 11:30ean
 SANSE-Ostadar I. jubenila
 Estala, Antzuola, 16:30ean
 Antzuola-Ostadar
 Erregional Ohorezko maila

ARETO-FUTBOLA

Larunbata 05
 Zubiaurre kiroldegia, Azkoitia, 16:30ean
 Zurt Taberna-ISU Leihoak
 Gipuzkoako Liga
 Kiroldegian, 18:00etan
 Aldaz H.K.-Kandela jatekx
 Zarautz Nazional III. maila

SASKIBALOIA

Larunbata 05
 Kiroldegian, 10:00etan
 Ostadar SKT-Internacional
 Nesken Junior maila, parte-hartzea
 Kiroldegian, 16:00etan
 Ostadar SKT-Soraluze Bergara
 Nesken Kadete maila, errendimendua

PILOTA

Ostirala 04
 Gurutzeaga, Zestoa, 19:00etan
 Zestoa-Intza
 Eskuz binaka bikoteka, II. kadetea
 Ezker hormako txapelketa

Larunbata 05
 Kirol guneko pilotakelua, 12:00etan
 Intza-Tartaloetxe
 Eskuz binaka bikoteka, I. jubenila
 Ezker hormako txapelketa

Igandea 06

Ibaeta, Donostia, 11:00etan
 Antigua I-Intza
 Eskuz binaka bikoteka, II. nagusia
 Ezker hormako txapelketa



ATLETISMOA

Larunbata 05
 Hendaya, 16:30ean
 Herriko hainbat korrikalarik
 XV.Txingudi Korrika lasterketan
 izango dira lehen.
 Zumaia, 17:00etan
 Lasarte-Oriako hainbat atleta XVII.
 Zakila Bira lasterketan izango dira lehen.

Igandea 06

Miranda de Ebro, 10:30ean
 Herriko hainbat atleta
 XXXI. Miranda-ko Maratoi erdian
 izango dira lehen.
 Donostia, 11:00etan
 Herriko hainbat atleta Donostiako
 Hiru mendiak proban parte hartuko dute.
 Orreaga, 11:00etan
 Herriko hainbat atleta Orreaga-
 Zubiri mendia lasterketan izango dira lehen.

TXIRRINDULARITZA

Larunbata 05
 Oiarzun, 09:30ean
 Herriko hainbat txirrindularik Aiako
 harriak BTT Maratoian parte hartuko dute.

Igandea 06

Biyak Bat elkarteak, 08:30ean
 Ostadar SKT-ko zikloturistik
 Arronara dute irteera.

ERRUGBIA

Larunbata 05
 Asti, Zarautz, 15:00etan
 Beltzak Ostadar Gure Etxea-
 Atletico San Sebastian
 Kadeteak, Lagunartekoa
 Anoeta miniestadioa, 15:00etan
 Bera Bera- Beltzak Ostadar Jalai
 Infantilak 14 urte azpikoa, Lagunartekoa
 Anoeta miniestadioa, 16:30ean
 Bera Bera- Beltzak Ostadar Jalai
 Infantilak 16 urte azpikoa, Lagunartekoa

Agenda

Larunbata 05, 20:00etan, Manuel Lekuona kultur-etxea



Edertaduna egoera latzetan

Metrokoadroka Kolektiboak "Poza: zergatik dantzatzen dute bosniarrek?" antzezlan eskainiko du. Bost lagun gela batean zer edo zer ederra gertatzeko zain. Gertakizun krudeletan topa daitekeen edertasuna izango dute hizpide, Bosniako gerra edo munduko edozein gatazka gogoan. Azkenean, gela horretatik atera gabe, edertasuna sortzen saiatuko dira. V. Topa eszenikako ekitaldia. Sarrera, 5 euro.

Igandea 6, 13:00etan

Zero Sette akordeoi orkestraren kontzertua.

Astelehena 7, 19:00etan

ONCE-ko antzerki taldeak "Cloche-merle" lana eskainiko du.

OKENDO PLAZA

Larunbata 5, 9:30etan

Ibilaldi neurtua izango da.

SAN PEDRO ELIZA

Igandea 6, 11:00etan

Adinekoen Omenaldi eguneko meza.

KIROL GUNEKO PILOTALEKUA

Igandea 6, 14:00etan

Adinekoen Omenaldi eguneko bazkaria. Ostean, dantzaldia.

AMA BRIGITAREN KAPERAN

Astearte 08, 11:00etan

Biyak Bat elkarteko urteurrenaren meza.

Lasarte-Oria

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Igandea 6, 17:00etan

Haurren zinea atalaren barruan, "Monstruos University" filma ikusi ahaliko da. Sarrera, leihatilan 3,60 euro; internet bidez, 3,18 euro.

Hitzaldia

ZABALET AUZOKO LOKALA

Ostirala 4, 19:30etan

Zaltzate baserriko Antonio Eleizegik "Hemengo txoriak eta beste hegaztiak"

hitzaldia eskainiko du. Zabaleta auzoko Udazken festeko ekitaldia.

Musika

ZULO ARETOA

Ostirala 4, 22:30etan

"Sugardevils taldea" eta punk-rock Jam sessioa izango da parte hartu nahi duen ororentzat.

Larunbata 5, 00:00etan

"After Party"-a izango da. Binarius DJ eta talde sorpresa batekin gozatzeko aukera.



Adinekoen omenaldia

BIYAK BAT ELKARTEA

Larunbata 5, 16:00etik 18:00etara

Dantzaldia eta dantza txapelketa.

Astearte 8, 17:00etatik aurrera

Urrezko ezteiak ospatzen dituzten bikoteei origarri banaketa. Ostean, merienda eta dantzaldia.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Ostirala 4, 18:45ean

Musika eskolako trikitilarien emanaldia.

Ostirala 4, 19:00etan

Sun Magoaren ikuskizuna izango da.

Igandea 6, 12:30etan

Elkarteko abesbatzaren emanaldia.

Erakusketa

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA ETA

HERRIKO TABERNAK

Urria amaiera arte

"1936 Lapurtutako haurtzarora" argazki erakusketa ikusgai izango da Udalak eta Islada Ezkutatutako taldeak antolatuta.

Añorga

V. Topa eszenika

ANTXON AYESTARAN KULTUR-ETXEA

Ostirala 4, 22:30etan

Abarka Antzerki taldeak "Biba zorrien izurritie!" antzezlan eskainiko dute. Sarrera, 5 euro.

Herritarren txokoa

Erketz-eko taldeen entseguak

Erketz EDT eta Erketz-eko Lagunak taldeek urrian hasiko dituzte entseguak.

Erketz-eko Lagunak taldeak asteartetan egingo ditu saioak eta Erketz EDT-ko kideek, berriz ostegunetan. Entseguak Zumaburu ikastetxeko gimnasioan izango dira, 20:00etatik aurrera ohi bezala.

Era berean, 5 urtetik aurrerako haur eta gaztetxoek ere Erketz Txikin dantza egiteko aukera izango dutela gogoratu dute.

Azalpen edo informazio gehiago eskuratu nahi duten herritarrek 635 746 028 telefono zenbakia jarri du eskura dantza taldeak.

Alboka Abesbatza eta Alboka Txiki-ren entseguak

Alboka abesbatzak jakin arazten du Alboka Txiki abesbatzak urriaren 1ean, astearte, arratsaldeko 18:00etan, Arantzazuko Ama elizapiko aretoan hasiko dituztela entseguak.

Herriko abesbatzak 5 eta 16 urte arteko haur eta gaztetxoak animatu

nahi ditu entseguetara hurbildu eta probatzera. Ez da beharrezkoa musika ezagutzarik izatea.

Bestalde, helduen abesbatzak astelehena eta ostegunetan 20:00etatik 21:30etara ditu entseguak. Anima zaitzete!

Uztaro Kooperatiba

Uztaro Kooperatibak janariaren kontsumo arduratsu, bertakoa eta ekologikoa sustatu nahi du.

Lasarte-Oriako eremua elikatzen duen baratza, Beizaman kokatua dago. Astelehenero, Danok Kide elkarteko lokalean banatzen dira barazki eta frutak, garaian garaikoak eta ekologikoak.

Proiektua gustuko dutenentzat atek zabalik dituztela jakitera eman dute Uztarokoek. Informazio gehiago eskuratzeko uztarolasarteoria@hotmail.com helbidean.

Hemeroteka

Duela 1078 ale

Euskal Herrian ehizarako ohitura handia dago eta Lasarte-Orian ere horrela delaren artikulu bat aurkitzen dugu 1995eko irailaren 8ko TXINTXARRI aldizkarian. Honetan Buruntz-Azpi elkarteko lagunekin ehizari buruz hitz egin da.

Buruntz-Azpi-ko Iñaki Lasak orduan "aurten 120ren bat abimen bideratzea espero dugu [...] Kopuru horri euren kontura baimena ateratzen dutenena gehitu ezker, gure herrian ehizarako afizio handia dagoela esan daiteke".

Euskal Autonomia Erkidegoaz gain, beste erkidegoetan "Castilla-León, Aragoa eta Extremadura" ehizatze baimenak egiten dituztela azpimarratzen zuten elkarrizketan.

Honetaz gain, gure herrian ehiza egiteko leku apropos gutxi dagoela aipatzen da. Buruntz-Azpi Benedika mendian ditu postuak, "jendeak uste baino leku gutxiago dago".

Gainera, bertan untxia izan ezik, ehizik ez dagoela ere aipatzen da. Hau dela eta, Foru Aldundi eta federazioaren laguntzaz Zubieta eta Andoain artean fairsaia askatu zituztela ere aipatzen du.

Honetaz gain, ehizaren egoeraz ere hitz egin du eta kirol honen inguruan sortutako eztabaida ere mintzagai izan zen.

Bestalde, Francisco Elizetxeak herritarrekin izandako solasaldi laburra ere argitaratzen da. Honetan txakurren garrantzia, ehizatarien ezaugarriak eta ehiza egitea garestia den edo ez azaltzen da.



Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Lasarte-Oria ezagutzen

"Lasarte-Oria gure herria" ikastunitatearen III. edizioa argitaratu du Udalak

Hamasei urte dira lehengoz "Lasarte-Oria gure herria" ikastunitatea argitaratu zenetik. Iraila honetan Lasarte-Oriako Udalak Artelatz kooperatibaren laguntzaz, III. edizioa kaleratu du. 8 eta 10 urte bitarteko ikasleei dago zuzendua eta herriko bi ikastetxeetan landuko dute. Hala ere, herritar guztien eskura izango da ikastunitatea, Euskara Batzordean edo Lasarte-Oriako Udalaren web orrialdean.

TXINTXARRI

Ba al dakizu... Lasarte-Oriak zenbat auzo ditu? Zenbat biztanle ditu? Zenbat gure herriak? Zein zuhaitz mota dauden gure herrian? Oria ibaiko faunaren behatokia dagoela? Lasarte-Orian hainbat sagardotegi zeudela? Lasarte-Oria Done Jakue bidean dagoela? Migel Antonio Okendo nor den? Herrian hainbat idazle ospetsu izan edo jaio direla? Oria ibaian batelak ibiltzen zirela?

Galdera hauei guztiei erantzuna emateko gai izango dira Sasoeta-Zumaburu ikastetxe eta Landaberri ikastolako ikasleak ikasturte amaieran.

Izan ere, Udalak Artelatz Ingurugiro Zerbitzuak kooperatibaren laguntzaz "Lasarte-Oria gure herria" ikastunitatea berrargitaratu du.

Ostiralean, Pablo Barrio alkateak, Euskara Batzordeko Lehendakari Boris Nogales eta Elisabet Godat Artelatz Ingurugiro Zerbitzuak kooperatibako ordezkariak lagunduta, Sasoeta-Zumaburu eta Landaberri ikastetxeetako haur eta irakasleekin batera aurkeztu zuten ikastunitatearen edizio berria Askatasunaren parkean.

Helburua

Agerraldian azaldu zuten

modura, ikastunitatearen helburua herriko ikastetxeei udalerriri buruzko ezagutzen sakontzeko material egokia eskaintzea da.

Lasarte-Oria 1986an eratu zen eta beraz, herri gaztea da. Horregatik, prentsaurrekoan aipatu legez, Udalarentzat garrantzitsua da herrian bizi diren guztiak lasarteoriatar sentitzea eta hau bultzatzeko ahalegin guztiak egiten ari da.

Bederatzi gai

Karpeta koloretsu eta eder batean biltzen dira ikasleak Lasarte-Oriako historian, naturan, kirolean etab. gaietan murgilduko dituzten liburuxkak.

Liburuxka hauetan bederatzi gai izango dira landuko direnak: "Kaleak, jendez beteak"; "Berdea nagusi"; "Lurrari esker bizi gara"; "Lan eta Lan"; "Hemendik hara"; "Zaharra berri"; "Euskara bizi-bizirik"; "Kirolak aukeran" eta "Jaia da gaia".

Otso Lontxo izango da bide honetan ikasleen lagun eta joko, ibilbide, atzera begira eta herriko jendearen pasadizoen bitartez gure herriari buruz ikasiko dute.

Edizio hau prestatzeko ardura, Artelatz Ingurugiro Zerbitzuak kooperatibak izan



Sasoeta-Zumaburu ikastetxe eta Landaberri ikastolako ikasle eta irakasleak Udala eta Artelatz kooperatibako ordezkariak.

du eta hainbat gai osatu eta gaur eguneratu dituzte. Elisabet Godatek adierazi zuenez "erabiltzaileen premiak ahalik eta ondoen asetu nahian" aurreko ikastunitatearen oinarria mantenduz, berrikuntza ugari txertatu dituzte argazkietan, diseinu grafikoan, baita paperean eta karpetan bertan ere.

Transmisioa

Prentsaurrekoan azaldu zuten, 1997 urtean argitaratu zen lehen edizioa. Orduan 1.000 ale kaleratu ziren eta 2005ean, bigarren edizioan ere beste hainbeste unitate

kaleratu ziren. III. edizio honetan beste 800 ale argitaratu dira.

"Horrek adierazten du herriko ikastetxeetan ikasi duten eta ikasten ari diren ia 3000 haurri transmititu zaikiela eta transmitituko zaikiela herriari buruzko ezagutzak", azaldu zuten.

Agerraldian amaiera emateko, Udaleko ordezkariak eskerrak eman nahi izan zituzten ikastunitatea prestatzen lagundu duten herritar guztiei eta bereziki Sasoeta-Zumaburu ikastetxe eta

Landaberri ikastolako irakasleei materiala erabiliz, "gure herriko haurrak lasarteoriatar sentitzeko egiten duten ahaleginagatik".

Eskuragarri

Era berean, ikastunitatea herritar guztien eskura dagoela jakitera eman zuten.

Interesa dutenek Euskara Batzordean 10,50 euroren truke eskura 3dezaket.

Lasarte-Oriako Udalaren web orrialdean ere bertso digitala zintzilikatuko dela aurreratu zuten.

Otso Lontxo 9 unitateetan Lasarte-Oriako hainbat kontu erakutsiko dizkie herriko haur eta gazteei.

